


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Berastegi Berastegi

*Arbizu,
Nafarroa
(1919-2009)*

Aurkibidea



Biografia



Juanitoren etxean jaio zen 1919an, bere aitonak eraikitako ostatuan. 14 urtera arte eskolan ibili ostean, ostatuan egin zuen lan, eta bertan geratu zen zaharrena baitzen. Senarrak ostatuan, bideetan eta nekazalgoan egin zuen lan.

Zintak

ARB-009

- **Proiektua:** Arbizuko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Reparaz, Xabier
- **Data:** 2008-07-24
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Reparaz, Xabier
- **Emalea:** Zizkerte Kultur Taldea

Pasarteak

1. Burdinak erakusten

- **Erref:** ARB-009/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Tresnak erakusten ditu: laratza, otajakia...

2. Jaiotetxea

- **Erref:** ARB-009/003
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:01:21. **Bukatu:** 00:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1919an jaio zen Ubeldeko etxean. Etxearen egitura.

3. Haurtzaroa

- **Erref:** ARB-009/004
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:03:53. **Bukatu:** 00:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Txikitako kontuak: eskola, jolasak...</p>

Transkripzioa

-Ta zuk bestaldea, haurra ziñenean ta akordatzen zea, txikiteko gauzek eta?

-Txikiteko gauzek? Bai.

- Eskola ta faten ziñen?

- Bai, eskola, hemengo eskolak eitteko denboran, [Larrean zen...gendun] guk.

- A bai?

- Bai.

- Eitteko zegon.

- Bai. Maria Luisa zuen [...]. Larrea, Jose Inaziokin ezkondua zen... Maria Luisa. Haik bizitu zian Larrean zan [...], bueno beste etxe batian.

- Han eskolan.

- Eta han egokitu... eskola hau.

- Maistrua bizi zen han.

- Bai, goyen goyen, [...]. Orduan ez giñaken guk diruik, eta karameluak kromuekin, ta jartzen zien kromuak ee.. hoik.. burnizko bai... [...] eta beste batzutan berriz kartonak eta haik jartzen geñuzen, hola, taka, zein ateratzen ziñuban gehiena, ta puntu bet eta, hola.

- Eta beste aldea, soka soka...

- Sokakin ere bai, bai. Ta gero, attokakan.

- Attokakan?

- Attokakan. Lur montonien egurra sartu ta bata bestiakin, zu sartzen ziñuen harria hurrengo sartzen zuenarena mugitu, ta mugitzen baziñuen, zuk irabazten ziñuen.

- Ta gero zer egiten zuen, bota makila?

- Bai.

- Eta bila jun.

- Bai. Gero kapelusa ere bai, kapelus zentzerrus!

- Hori zer da?

- Kapelus, e, osea, kuadrilla biltzen giñen ta paratian kontra galtzen zuena zeon paretian kontra beida, ta ya, hor esaten geñun: “kapelus, zentzerrus!” Eta denak hor denak errostatzen giñan ta ordun bata bestian bila. Osea, han zeonak bestiak bilatu behar zittuen ta lehenbizi harrapatzen zuena, atzea hura parattian kontra.¿Qué trabajos, eh!

- Bai. Ta bestela eskolan meistru bat akordatzen zaa edo meistra?

- Meistra bai. De Castro Urdiales giñuen guk meistra, e... Ez da alabatzeagatik baina lixta nitzen eskolan.

- Bai, e?

- Bai. Beti lehen.
- Bai, e? Ona orduen?
- Bai. Ez da nere burua jasotziagatik, baina egiya da. Eta, esto... kantatzen giñuben... espera, nola da? "Niñas si queréis venir vamos a la batalla, vamos a defender a nuestro santo Papa... vendrá..." eztakit zer "antes defender..." Espera, galdu naiz.
- Bai, kantu hura, ez dakit.
- Bai.
- "A defender a nuestro..."
- Gero berriz´e... ordun ze himno klase zegon.
- Bai, karo .
- Eskolai, eskola guztiai buelta osua ematen giñon, himnoa kantatu behar, ta gero kanpora.
- Errepublikara garaien?
- Hori da, bai, bai.

4. Kanpora lanera

- **Erref:** ARB-009/005
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:06:46. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Kanpoan zerbitzatzera joateaz hitz egiten du. Berari ez zitzaion tokatu kanpora joan beharra.</p>

Transkripzioa

- Eta gero jende asko joaten zen serbitzea eta kanpora ta...
- O, denak serbitzen [...]
- Bai, zuri ere tokatu zakizun?
- Festetako autobusa etortzen zen serbitzeko jendiakin.
- Bai, e?
- Izeba Frantziska zuben hura, beno izeba baiño gehio...
- Bai, Txulokua esaten dezu, ezta?
- Segunda tía o...
- Bei, bei.
- Pues, harren denboran, harren denboran autobusa etortzen zen.
- Ta noa joaten ziren autobusak?
- Donostin gehienak. Iruña aldia baiño gehio Donostia. Bai, bai, bai.
- Zuri ez zakizun tokatu?
- Ez, ni hemen.
- Zu... hemen serbitziakin nahikoa... ordun.
- Bai.

5. Familia

- **Erref:** ARB-009/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Bere aitona Juanitok etxea eraiki eta taberna jarri zueneko kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Aitzazu, bederatzi senide izandu giñen.
- Bederatzi senide?
- Eta gure ama urte batekin /urtiatekin/ gelditu zen amaik pe. Eta gero aittuna, eske egin zen ezkondu bigarren alditan. Eta, oi, gure amak ere, Jesus! Kejatzan zen aittunai, ama, osea, madrastrangatikan. “Ze ein bihar dut, haurra, zu alaba ta bestia andria dut eta ia ze ein bihar duten nik!”; oso suerte txarrekoa zan gure ama. Umek ordeko hemen Joxen [ixkiñara ekarri zaubien]. Baiña ke ba! Ez emen zuen [hilabete ein]. Bere amiña [...], “Amiña, ni etxea! Amiña, ni etxea!” ta “Baiña aittek ze esan bihar dizu / bihaizu/? Ez zaittu amettituko!” eta “Ni etxea!” eta eman emen zuen [...] etxea. Geo, nere aittuna horri esan omen zion: “mutikoa, neskato honek ez dik ba oneik ta. [...] Itxura ere bizi zen, [suge herrosa] bat jarri omen zen, gero esan omen zuen: 20 urteko ume banazka ere, nik ez bat eman umekorik ordeko. Haurra, hartzazu saria ta zuaz kardeberetara. Ze kolejiyu bilatzen zuten, eh! Kardeberak ba al dakizu zer zien?
- Ez. A! Belar txarrak...
- Pateta tartien dabilen e...
- Belar txarrak...
- Jende asko joaten zen kardaberak biltzea.
- Gero zer ematen zuten dirun bat edo hura kentzeagatik edo nola?
- Ez, ez.
- Oi soruen, souen belar txarrak kentzea.
- Ba, gero gure amak esaten ziguen, Altsasun bestela han serbitzen lagunak eta, hara madrastra: “La hicieron de almíbar y todavía sabía amarga”.
- Hori esaten zun zuen amangatik?
- Bai, “La hicieron de almíbar y sabía amarga”. Hola...

6. Soroan lanean

- **Erref:** ARB-009/007
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Zer lan egiten zuten etxean, soroan…</p>

Transkripzioa

- Lanak eta aurrero asko egin dezue emakumiek eta...
- Soruen.
- Soruen, soruen gaztiek ezta?, ta itxen gero zaharraguek eta... sukaldien
- Horregatik goizeko [utuperra] ta joateko, hurrenian goizeko bostetan igual

belarra [ebaitzea] ta gero gosaia egin. Gosaia, badakizu, eltze pateta no faltaba.

-Gosaria zuek ematen ziñubien?

-Bai.

-Bai, bai hola, emakumiek eta bueno, neskatuek eta...

-Emakumiek-eta pues belarrai buelta ematia, belarra barratzia... holako kontubek.

-Bai, ta gizonak gosalduta bazkaldu ta egiten zuen soruen askotan.

-Souen! Ta geo bazkaldu ta halako ezponda [...balin bazuen], han siesta pixket...

-Siesta iten zuen.

7. Garai hartako bizimodua

- **Erref:** ARB-009/008
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Hainbat kontu aipatzen ditu: zer jaten zen, nola bizi ziren, zeinen latza zen bizia...

8. Elikadura

- **Erref:** ARB-009/009
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:10:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Taloei eta ogiari buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

- Gero taluek eta ere egingo ziñuen zuk?

- Talue ez dut ezautu itxen. Osea, bai, beste etxan baten ikusi dut, baiña etxean ez, eske gure amak egiten zigun ogiya, ta saltzen zuben ogiya.

- A! Saldu eitten zittun?

- Bai, saldu eitten zuben, bai, asike...

- Harekin zuk...

- Osea ke, talorik ez...

9. Elizan

- **Erref:** ARB-009/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Eliza: sepultura.</p>

10. Emakumea

- **Erref:** ARB-009/011
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Emakumeak soroan nola tapatzen ziren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Ta, bestela, sorora... jendea sorora joaten zenian da, emakumik tapatu itten tzin ezta?
- Uuu... sudur punta gehien bakarrik, ez giñun beztu bihar e. Ke ba! Akordatzen naiz [Mahatsan... Angeles] bizi da gure gaiñin. Modista zen eta bititzen zien Kontxin kalin eta... Este... Fermiñoneko Juan hemen [ziharrekale] hontan soroa [etortze zenin]. Jo, Juan guantiekin pateta ateatzen. Ikustia guk!
- Guantiekin.Gauza berria.
- Ze nobedadia e!
- Nobedadia.
- Eta hombre, ez giñuen beztu biher, sudur punta, begiyek juxtu-juxtu tapatu ta pañelua ederki jarri ta... ez beztutzeko!
- Orain alrebes!
- Orain beztu ein biher! Urduan ez beztutzeko!
- Diferentziya.
- Bai.

11. Belarra

- **Erref:** ARB-009/012
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:13:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Belarra ebakitzera joaten zirenekoa kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- Ta gero belarretara ta...
- Baita ere.

- Areiñara ta, bai baita ere... haik bronkak, buuu...

- Zer ba?

- Txanda batian Areiñaa joan giñen ta...

- Bi karri ekarri behar gure gizon horrek, zu!

- Lehenbiziko karrua ta gero endeitz hura. Sokako e, sokara lotu zian beste karrua, ta keba, oi... euki zakiun [...].

- Bi karro?

- Bi karro arbi. Bat ez ekarri, eta bi ekarri behar. Baiña, klaro, [Areiñaa....] ta bi ekartzia, pues bentaja handiya zuben.

- Klaro, biaje [...].

- Klaro. Gero itxea ekarri eta zea ere, goiko burni hoik dauden tokira atera belar guztia maineretan, [ez zen hobia].

- Hor lan handiya [egiten zuten].

- Bai.

- Hor gizonak bakarrik.

- Bai.

12. Aldaketak

- **Erref:** ARB-009/013
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aspaldi gaur egun baino borondate hobia omen zen: elkarri laguntzeko joera handiagoa zegoen.

13. Zorrak

- **Erref:** ARB-009/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:15:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bere aitona Juanito zorretan sartu zen etxea eraiki eta taberna jartzeko, eta azken letra ordaindu zueneko kontaketa du.

14. Txerria hil

- **Erref:** ARB-009/015
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:15:29. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Txerria hiltzen zenekoaz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

- Ta gero txerrik hiltzen zubenin da...
- Eh?
- Letxonak biltzen zittubenin, orduben festa izaten zen, ezta? Fiesta...
- Festa, bueno....., guri, ama zen, nere ama zen Goiko hargiñeana eta anaia zakan han ezkontute zeon da ta anaia hura ere ekarri beharko zuben Santu Guztiten eta txerriye hiltzekuen... Geo festa itten zen txerriya hiltzekuen.
- Puska ematen zen gero parientiei.
- Gero tripotak partittu, lehengusiei o illebei o senidiei, tripota bere gibel puxkakin partitzen zen.
- Eta urtiakin zenbat txerri...
- Itxe bakoitzien?
- ...hiltzen ziren? bai, bat edo bi?
- E.. gehien hiltzen zuenak bi. Bi, bai. Batekuek asko.
- Batekuek?
- Bai, batekuek asko, baiño bi ere bai.
- Gero pernillek eta... gatzetan.
- Gatzetan, eta... ba ongi kontserbatzen zien. Jendiek e tokiya badakizu orduben almazen o, oain almazen esaten dieu, baiño orduen txoxak eta izaten zien, eta han zeon ez ongarri ta ez ezer ere ez, humedadeik ez... Eta ez dakit zenbat egunetik buelta ematen zakiyon urdeiei. Urdeie gatzien jartzen zittunien, ta gero ez dakit zenbat eguneta buelta ematen zakiyon, bai.

15. Txerria hazi

- **Erref:** ARB-009/016
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:16:53. **Bukatu:** 00:18:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Txerriak hazteko, ezkaratzean ematen zitzaaien jana txerrikumeei. Bezero batzuek gaua tabernan pasatzen zutenak eta harritu egiten ziren hainbeste euli ikusita.</p>

Transkripzioa

- Txerriyek hazitzekuan da, basuan egoten zien ta gero ekarri egiten zien, ezta?
- Bai.
- Ta gero hemen ematen zenien....
- Gero itxen.
- ... arbiyek eta...
- [Pentsa ezazu], hazitzen zen orduan euliye, mmm, alegiya, "por carros"!
- Euliye.
- Txanda batian biajante bat etorri omen zen gure etxea ta, gure amak [...] gizon hori, ta gora etorri zen. Euliyek eskaratzien [...] eta euliyei gizon hura pasien ta, "bruu" jasotzen omen zien, ta "Jesus! hor zion, ba, oain'e gizon

hori". [guri zeatzen ez...] ta bera pasatzian, "bruu" jasotzen omen zian.

- Euliya asko orduan.
- Euliya kantidadia.
- Ta barretik-eta jende asko pasatuko zan, ba, hola, kanpoko jendia ta?
- Bai, beti ezautu dugu jendie, oai ta... Oai´e bastante [darabigu] ta, beti, beti jendia.
- Ta euskeraz, euskeraz zakittenak ta euskeraz ez zakittenak ere pasatuko zian...
- Baaa... bai, ta zenbat kastellano sortuko zen? [...] euskeraz dena.
- Bai, euskeraz dena. Ta bazkariak ematen zenittuen... Bazkaiek eta...
- Bai, bazkaiek. Afa... hombre, bastante [guatzik egiten giñuen].
- Guatzik ere bai...?
- Gure amak jarriko zittuen guatzik, baita ez dakit nun ere,... bai, bai.
- Lo egiten gelditzen zien.
- Lo egittea, bai, bai.
- Posada bezela edo?
- Hori da, bai.

16. Bideberriko lanak

- **Erref:** ARB-009/017
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Aitona gurdizaina izan ze: diputazioarentzat egiten zuen lan errepidean harria txikitzen, eta nola ibiltzen zen azaltzen du.

17. Argia

- **Erref:** ARB-009/018
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argindarra

18. San Juanak

- **Erref:** ARB-009/019
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:22:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juanetan nola dantzatzen zen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

- San Juanetan ta...
- Bai, diferentia [zian] San Juanetan, e... San Juanetako zortzikoa... Herri askotan ere egiten da ta hemen ez [be egin]... Zaharrena hau zen eta gero utzita [...]. Nik ezagutu dittut azkeneko zortzikuen Kondian Felix, Motzan atzekaldeko Antonio... gehio ez dakit. Ariñak izaten zien dantzari horiek.
- Zer egiten zuen zortzikuen?
- Orduen?
- San Juanetan ez?
- Orduen, pues, neskato ta mutiko fila haundi bet jartzen zen ta eskuti heldute pañelua, batetik bestea pañeluakin, eta bueltak ematen zittunien kantatubaz ze hau...
- "Maria Lonbrenen zaldiya"?
- E?
- "Maria Lonbrenen zaldiya"?
- Bai. "Maria Lonbrenen zaldiya, salto ta brinko larriya". Bai, hura. Ta geo gelditzen zenien, pues, jota kantatzen... jota dantzatzen zuen. Ta gero, nola egitten da saludo hori aurrekuko dantza hori, pues estilu hortaa Ayuntamientukok egoten zen balkonien ta [harri zeatzen ziyoen].
- Plazan?
- Plazan, plazan bai. [Nik] oaindiken ´e Josetxo [Jostana] oain dala hiru urte edo lau urte joan zen, Ameriketaa joan zen, eta hura etorri ta ez ziela lehenoko festak.
- Karo, festa asko kanbiatu da.
- Dena.
- Aurrero, musika ta jendiak kantatu ta... jendiak kantatu...
- Hoooola, bai. Nik dantzan ezautu dittut Paula Mari Anttoniña ta... amiñek! eta dantzan han plazan. Eta goai ezta haurrik ez da dantzatzen.
- Korruen ezta? Jendea korruen jartzen zen ta...
- Bai, bai.

19. Almirantea

- **Erref:** ARB-009/020
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:22:42. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Braulio almirantea.

20. Kintoak

- **Erref:** ARB-009/021
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Kintoak: beren tabernan ere izaten zen soldadutza egin aurreko parranda.</p>

21. Lixiba

- **Erref:** ARB-009/022
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:25:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lixibak nola egiten ziren.

22. Artoa

- **Erref:** ARB-009/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:25:41. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoarekin multzoak nola egiten ziren azaltzen du.</p>

23. Behiak

- **Erref:** ARB-009/024
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:38. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Behiei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

- [Ez zegoen kuartorik,... hantxen ez da gelditzen].
- [Ez dabil]... behiek eta ahuntzek eta bai...
- Behiek eta...
- Ta zuk baziñazkazuben, esto, idiyek o behiek?
- Guk?
- Bai. O ez ziñakazun?
- Iriyek, iriyek, iriyek zittuen! Gero, azkenea, pues, behiren bat, [baiña], bai, iriyek, iriyek.
- Iriyek. Lana itten zuen iriyek garai hartan.
- Ta gero soruei buelta emateko ez zegoen traktoreik. Ezautu giñuken geo... bueno, [etxien ezautu giñuben traktoria], baiña ez zegoen traktoreik, eta ganaduekin ematen zekiyon lurrai buelta. Lehenbizi, pixket urratu eta gero

makina edo “bravan” o demontre!

- Ta behiei, zera, izena jartzen zakiyoen, ezta?

- A, bai... batian Morika, bestian... izena, bai.

- Ongi tratatzen zakiyen behiei hola...

- Aitzazu! Ardiyek´e gehienak izena bazubien. Oain ez dakit. Ardiyek´e bai e!

24. Ahuntzak

- **Erref:** ARB-009/025
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:28:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ahuntzei eta ahuntzainei buruz hitz egiten du.

25. Oiloak

- **Erref:** ARB-009/026
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Oiloei buruzko anekdota kontatzen du.

26. Orbela eta gaztainak

- **Erref:** ARB-009/027
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:30:57. **Bukatu:** 00:32:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztainak eta orbela

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com